



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko otsailaren 19a

21. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza-programa bat abian jar dezan ikastetxeetan, institutuetan eta LHko ikastetxeetan, haurren eta gazteen artean sare sozialak erabiltzetik hel daitezkeen pribatutasunerako eta segurtasunerako arriskuak prebenitzeko. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berdintasuneko agente lanpostuak sor ditzan. María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ekonomia Sozialari buruzko Batzorde Berezi bat era dezan. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua, Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen dira Konstituzioaren 135. artikulua erreforma deusezta dezaten eta 2/2012 eta 27/2013 legeak indargabetu ditzaten. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko enpresen eta pertsona ekintzaileen zamaren eta soiltze administratiboaren urteko zerrenda bat taxutu eta prestatzera. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat presta dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egitura, antolamendu eta funtzionamenduaren gaineko Erregelamendumarko bati buruzkoa, Gobernu Egokian oinarritua. Osasun Batzordean izapidetzea (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontuen Ganberak Nafarroako kontu publikoetarako eginiko zenbait gomendio aplikatu ditzan. Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordean izapidetzea (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa programa bat presta dezan seme-alabek gurasoei egindako erasoen kasuetarako. Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea (11. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legearen aplikazio-eremuekin zerikusia duten dekretuak gara ditzan. Desgaitasunaren alorreko Politika Integralei buruzko Batzorde Berezian izapidetzea (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Legebiltzarreko Erregelamenduan galderei erantzuteko ezarritako epeak bete ditzan. Erregelamendu Batzordean izapidetzea (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun osoa adierazten baitzuke iragan otsailaren 8an eraso sexista bat pairatu zuen ETBko langileari. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Keywan Karimi-ri eta beren arte-lana erreibindikazio- eta borroka-molde gisa erabiltzeagatik errepresaliatuak izan diren eta izaten ari diren pertsona guztiei. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere desadostasuna adierazten baitu Estatuko Abokatutzak lan-eskaintza publikoa eta plantilla organikoa direla-eta aurkeztutako errekurtsioekin. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Altsasun gertatutako sexu-erasoa gaitzesten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide bat hautatzea. Hautagaia aldarrikatzea (15. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2016. urterako langileen plantilla organikoa (15. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2015eko abenduaren 31koa (17. or.).
- Nafarroako Kontuen Ganberako 2016. urterako plantilla organikoa eta 2015eko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda (20. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza-programa bat abian jar dezan ikastetxeetan, institutuetan eta LHko ikastetxeetan, haurren eta gazteen artean sare sozialak erabiltzetik hel daitezkeen pribatutasunerako eta segurtasunerako arriskuak prebenitzeko.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hezkuntza-programa bat abian jar dezan ikastetxeetan, institutuetan eta LHko ikastetxeetan, haurren eta gazteen artean sare sozialak erabiltzetik hel daitezkeen pribatutasunerako eta segurtasunerako arriskuak prebenitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko kide Iñaki Iriarte Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, mozio hau aurkeztu die Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuari:

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak errealitate aski hedatua dira aspaldidanik. Teknologia horiek iraultza ekarri dute ezagutzaren ulertzeko, informazioa mugiarazteko, lan egiteko, ikasteko, geure burua prestatzeko, iritzia emateko eta harremanak edukitzeko moldeetan. Halatan, besteekiko interakzio-molde berriak ahalbidetu

dituzte, orain dela hamarkada gutxi batzuk pentsaezinak zirenak.

Teknologia horien abantailak ukaezinak dira, eta horien ezarpena atzerazina da; hala eta guztiz ere, arrisku handiak ere badituzte. Arrisku horien artean leudeke, esate baterako, talde terroristak eta estremistek gorrotzko mezuak hedatzeko baliatzea, maulak eta datu-lapurretak, adikzioak eta mendekotasunezko jarrerak garatzea, ziberjazarpena nahiz pertsonen pribatutasunaren eta intimitatearen aurkako erasoak eta abar. Azken horiek eragin berezia dute sare sozialak usu erabiltzen dituzten adingabeen eta gazte helduen artean.

Kalkuluen arabera, 12 eta 25 urte bitarteko gazteen % 90 baino gehiagok erabiltzen dituzte sare sozialak. Horietan jolastu, txateatu, bideoak, irudiak eta esperientziak partekatu, beste pertsona batzuk ezagutu eta abar egiten dute. Sarritan, harremanetan jartzen dira fisikoki ezagutzen ez duten jendearekin eta nor diren eta egiaz non dauden inolako segurtasunik ez daukaten jendearekin. Iturri batzuen arabera, adingabeen % 35-40 inguru izan dira ziberjazarpen molderen baten biktima. Halaber, nerabeen antzeko ehuneko batek jazarri edo umiliatu omen du beste adingabe bat. Beste datu batzuek % 15era eta % 9ra jaisten dituzte zenbateko horiek. Edozein modutan ere, argi dago fenomeno kezkarri baten aitzinean gaudela, emakumei proportzio askoz ere handiagoan eragiten diena gainera.

Hezkuntza da gisa horretako jokabideak prebenitzeko tresnarik onena. Adingabeei eta gazte helduei erakustea jazarpen-jarrerak bereizten, halakorik gertatzen denean salatzen, eta biktimei elkartasuna adierazten, besteak errespetatu

tzen eta sexua, sexu-aukera, arraza, sinesmenak, ideologia, nazionalitatea, hizkuntza, klase soziala eta abar direla-eta ez diskriminatzen, pribatutasuna zaintzen eta informazio pertsonala ezezagunekin ez partekatzen, teknologia seguruak erabiltzen, eta abar.

Egia da gure erkidegoan gaiari buruzko hainbat ekimen abiatu direla –batez ere, ikasleentzako hitzaldiak– eta irakasleentzako zenbait ikastaro eskaini direla Teknologia berriei eta hezkuntzari buruzko programaren barruan. Halaber, Hezkuntza Departamentuak Dédalo Fundazioaren “Guía para familias. Manual del sentido común en internet” gidaliburuaren argitalpena finantzatu zuen

2015ean. Halere, argi dago arazoak hartu duen garrantziak beharrezkoa egiten duela jarduketa sistematiagoak eta iraunkorrak egitea.

Hortaz, honako mozio hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentua Nafarroako Gobernua premiatzen du hezkuntza-programa bat abian jar dezan ikastetxeetan, institutueta eta LHko ikastetxeetan, haurren eta gazteen artean sare sozialak erabiltzetik hel daitezkeen pribatutasunerako eta segurtasunerako arriskuak prebenitzeko.

Iruñean, 2016ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berdintasuneko agente lanpostuak sor ditzan.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berdintasuneko agente lanpostuak sor ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Deitzen den hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea mozioa, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.^a Teresa Saez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren jatorria jabeldura bat da, berdintasunerako eta indarkeria matxisten prebentziorako politika publikoei buruz 2016ko otsailaren 4an 9-15/ITP-00015 espedientearekin eztabaidatutakoa.

Berdintasunerako politika publikoak indarkeria matxistetarako irtenbide eta txerto bakarra dira.

Emakumeen aurkako indarkeria gure gizartearen funtsezko gabezia demokratiko handiena da. Izan ere, haren egiturazko izaera dela eta, emakume guztioi eragiten digu, nahiz eta biztanleriaren % 51 izan eta berez laguntza behar ez duen kolektiboa osatu. Hona hemen Soledad Murilloren hitzak: "Biztanleriaren % 51,7 ezin da gutxiengotzat jo. Inor ez da kuota bat, biztanleriaren gehiengoaren zati izanda".

Egungo postmatxismoa nahasketa sortzen eta, horrela, helburu bikoitza lortzen saiatzen da; alde batetik, emakumeen aurkako indarkeriaren egungo egoera egiturazko matxismo historikotik aldentzea, horrela errealitateari esanahia kentzeko eta desberdinkeraren ondorioztat ez jotzeko, gizon bakan batzuen jokabidetzat baizik; eta, beste aldetik, desberdinkeria zuzentzeko eta berdintasuna sustatzeko helburua daukaten neurriak desegitea.

Hala eta guztiz ere, Nazio Batuen Erakundeari esker badakigu emakumeen aurkako indarkeriaren arrazoiak genero-bereizkerian, arau sozialetan eta hori iraunarazten duten genero-estereotipoetan oinarritzen direla.

Prebentzioa bizitzaren lehenengo etapetan abiarazi behar da, haurrak heziz errespetuzko harremanak eta genero-berdintasuna sustatzen dituen eredu baten barnean. Gazteekin egindako lana aukera onena da, genero-indarkeria saihestu

eta desagerraraztearen arloan aurrerapen azkarra eta iraunkorra lortzeko.

Baina, nola egiten dira berdintasunerako politika publikoak? Pekingo hitzaldiak bai politika guztietako genero-ikuspegia (mainstreaminga) bai emakumeen ahalduntzea jo zituen aukera-berdintasun eraginkorra lortzeko zein emakumeen aurkako indarkeriak desagerrarazteko tresnatzat.

Genero-zeharkakotasunaren edo mainstreamingaren helburua genero-berdintasunaren printzipioa txertatzea da, politika eta administrazio publikoa osorik aldatzen dituen egiturazko elementua den aldetik.

Gaur egungo testuinguruan konplexutasun soziala gero eta handiagoa da; erakundeetan konfiantza galdu da; demokraziarekin gaitzusteaz ezarri da; eta herritarrek inoiz baino eskakizun gehiago dituzte. Horrenbestez, testuinguru horretan genero-zeharkakotasuna funtsezko elementua da herritarrei begira dagoen edozein gobernu filosofiatan. Alde horretatik, gobernu ona ezin da ulertu eraginkortasunaren eta efikaziaren ikuspegitik bakarrik. Gobernu ona administrazio inklusiboa eta demokratikoa ere bada, kalitate hobea daukaten politika publikoak sortzeko gai dena. Eta politika horiek hobeak dira, ongi diseinatu, kudeatu eta ebaluatuta daudelako eta, mota guztietako herritarren beharrezan eta interesak biltzeaz gain, horiei erantzuten dietelako. Horrek erakundeak aldatzeko asmo handiko prozesua dakar berekin, legediek bermatzen dutena eta erakunde publikoen jardunak eta kultura eraldatzea eskatzen duena.

Horrenbestez, honako hauek behar dira:

– Bizitzaren alderdi guztietan, bai ekonomikoetan bai politiko, sozial eta kulturaletan, genero-ikuspegia daukan araudia.

– Administrazio politikiariak eta teknikariak prestatzea.

– Errealitatean esku hartzeko jarduketa-planak eta -programak.

– Genero-eraginaren txostenak.

– Emakumeek bereziki eta herritarrek oro har parte hartzeko eremuak.

– Emakumeen ahalduntzea.

– Mutikoekin eta gizonekin lan egitea.

– Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika politika publikoen erdigunean jartzea.

– Herritarrak sentikorrak bihurtzea.

– Baterako hezkuntza: Hezkuntza Plan Sektoriala, Emakumeen aurkako Indarkerien kontrako Foru Legea aplikatzeko.

Erabaki proposamena

1. Nahiz eta garrantzitsua izan den INAI Nafarroako Berdintasunerako Institutu gisa berreskuratzea, funtsezkoa da horri berdintasun politikak gauzatzen dituzten programak diseinatu, planifikatu, kudeatu eta ebaluatzen adituak diren profesionalak esleitzea; aukera-berdintasuneko agenteak, alegia. Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du legegintzaldi honetan berdintasuneko agenteen lanpostuak sor ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du eta eskatzen du Nafarroako Gobernuaren proiektu, arau eta plan guztiek genero-eraginaren txostenak izan ditzaten. Horretarako, txostenak egiteaz arduratzen diren teknikariak behar bezala prestatuko dira, eta/edo beharrezko kontratazioak eginen dira, datuak aztertuko dituztenen gaikuntza teknikoa bermatzen dutenak. Horrez gain, emakumeen eta gizonen arteko aldeak eta bereizkeriak arintzen dituzten neurriak gehituko dira, horrelakorik baldin badago.

3. Halaber, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du eta Nafarroako Gobernua premiatzen du politika publiko guztien datu guztiak sexuaren arabera bananduta aurkez ditzan derri gor eta gainerako aldagaiekin (adina, klase soziala, hezkuntza-maila, enplegua, osasuna eta abar) alderatu ditzan, edozein eremutan emakumeen eta gizonen errealitatea ezagutze aldera.

4. Administrazio publiko guztiak bezala, Nafarroako Parlamentuak hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta integratzailea bermatu behar du. Horrela bada, araudia beteko du, eta Nafarroako Gobernu osoari hori betetzeko eskatzen dio. Horretarako, bai Nafarroako Parlamentuak bai Nafarroako Gobernuak beharrezko baliabideak erabili beharko dituzte.

5. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Genero-berdintasunari buruzko Foru Legea prestatzeko prozesua abiaraz dadin agente guztiak biltzen dituen partaidetzazko prozesuarekin.

6. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Nafarroako Gobernu departamentu guztietan berdintasun unitateak finka daitezen, horretarako behar dituzten baliabideak (aukera-berdintasuneko agenteak barne) emanda. Izan ere, unitate horiek behar-beharrezkoak dira, administrazioaren eremuan eta emakumeen eta gizonen artean berdintasun

tasun-printzipioa pixkanaka-pixkanaka eta eragin-kortasunez gehitzeko.

7. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du lan-mahaia osa dadin INAI, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta berdintasuneko teknika-riak dituzten toki erakundeen artean, Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nafarroako Udalen Sarea garatzeko asmoz. Era berean, emakumeen aurka-ko indarkeriari buruzko tokiko protokolo-eredu bat garatuko da toki entitateetarako. Eredu hori koordi-

natu egingen da emakumeen kontrako indarkeria kasuen arreta eta prebentzioa eraginkortasunez koordinatzeko den erakundeen arteko akordioarekin.

8. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du INAI-ren mende dagoen Berdintasunaren Nafarroako Behatokia sor dadin.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ekonomia Sozialari buruzko Batzorde Berezi bat era dezan.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ekonomia Sozialari buruzko Batzorde Berezi bat era dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroan enpleguaren egoera zein den aztertzeari eta enplegua sustatzeko eta sortzeko analisia egiteari buruzko honako erabaki proposamen hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Iragan urtarrilaren 27an, Nafarroako Parlamentuak lan-bilera bat egin zuen CEPES Navarra-Ekonomia Sozialaren Enpresa Konfederazioaren ordezkariekin, zeinek aukera izan baitzuten beren

helburuak eta ekonomia sozialaren arloan egiten dituzten proposamenak aztertzeko eta azaltzeko.

Ekonomia soziala da krisian zehar hoberen moldatu den eredu ekonomikoa; halatan, enpresa asko bihurtu dira eredu horretara, eta horri esker mantendu ahal izan dute beren bideragarritasuna eta biziraupena.

Gero eta entitate gehiagok eta enpresa gehiagok egiten dute ekonomia sozialaren aldeko hautua. Sistema horrek honako printzipio hauek defendatzen ditu: pertsonak kapitalaren gaintik egotea, taldea norbanakoaren gaintik egotea, etekinak berriz ere inbertitzea, lana eta familia bateragarri egitea, lurraldean sustraiak botatzea, edo erretiroa enpresan hartu ahal izatea, langileari eta haren senitartekoei egonkortasuna bermatzeko.

Ekonomia sozialaren Nafarroako enpresa eta entitateak sektore ekonomiko guztietan jarduten dira, eta tamaina guztietakoak daude, mikrokooperatibetatik eta korporazio handietara. Horietako batzuk aitzindariak dira beren sektorean, eta horiek dira Nafarroako Foru Komunitatean enplegu-sortzaile nagusiak.

CEPES Navarrako lehendakariak emandako datuen arabera, ekonomia sozialak 1.100 enpresa eta entitate hartzen ditu Nafarroan, 2.000 milioi euro baino gehiago fakturatzen ditu, eta 16.000 pertsona baino gehiagori ematen die lana zuzenean: Nafarroako enplegu pribatuaren % 7,3. Orobat adierazi beharra dago sortzen den enplegua kalitatezkoa dela –izan ere, mugagabeak dira sinatutako kontratuen % 77–, eta genero-orekaren alde-

ko apustu garbia egiten du, kontratu horietako % 45 emakumeenak direlako egun.

Nafarroako ekonomia soziala beste autonomia erkidego batzuetako baino gehiago ari da hazten, eta dinamika hori babestu eta zaindu beharra dago.

Horretarako, inplikaturako eragile guztiek esku hartzea lortu beharra dago, bai eta norabide horretan proposamenak eta neurriak aurkeztuz ekonomia soziala hobetzen eta garatzen lagun dezaketen guztiak ere. Batzorde berezi bat eratuko balitz –CEPESek berak eskatu bezala–, eragile eta aditu

guztiak bil litezke, eta enplegua sortzeko berariazko irtenbideak proposatu, hori baita zalantzarik gabe parlamentu-taldeek eta herritarren kezkarik nagusienetako bat.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ekonomia Sozialari buruzko Batzorde Berezi bat era dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 10ean

Eleduna: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua, Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen dira Konstituzioaren 135. artikulua erreforma deusezta dezaten eta 2/2012 eta 27/2013 legeak indargabetu ditzaten.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua, Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen baitira Konstituzioaren 135. artikulua erreforma deusezta dezaten eta 2/2012 eta 27/2013 legeak indargabetu ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeetako eledunek, legebiltzar honen Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Konstituzioaren 135. artikulua aldaketak –PSOEek eta PPK sustatua– ezartzen du zorrarekiko betebeharrak –interesek eta kapitalak– erabateko lehentasuna dutela, beste edozein gastu publikoren gainetik, eta horrek esan nahi du zerbitzu publikoak eta horien bidez bermatu nahi diren eskubideak inbertsiogileen interesak asetzaren mende gelditzen direla.

La oharkabean pasatu bada ere, erreforma horretan, Konstituzioko manu izatera igaro da toki entitateen aurrekontu-oreka, eta, horrenbestez, larriki murriztu da toki administrazioen kudeaketa.

Legezko aurreikuspen horrek ondorio larriak ditu administrazio publiko guztien gastu publikoaren gaineko erabaketan, are larriagoak direnak toki entitateei dagozkienetan; izan ere, Konstituzioaren aldaketa honen eta aldaketa hau garatzen duen legediaren ondorioz, zerbitzu publikoen besterik gabeko kontratazio-agentzia bihurtzen dira, aurrekontu itogarriak dituztenak, eta ezinezkoa zaie gizartearen intereseko ekimenak aurrera ateratzea eta inbertsio publikoak egitea.

Konstituzioaren 135. artikulua aldaketak, halaber, galera konponezina dakar nazio-subiratasunari eta lurralde-administrazioen finantza-autonomiari dagokienez. Izan ere, nola birnegoziatuko dira ordainketa-baldintza hobekoak Espainiaren hartzekodunekin, baldin eta gure konstituzioaren manu bat balia badezakete horri uko egiteko? Europar Batasuneko beste herrialde

batzuetan –paradigmatikoki, Alemanian–, zergatik ez dago zorra ordaintzeari erabateko lehentasuna emateari buruzko halako araurik?

Aldatutako Konstituzioko artikulua hori gartzean, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2002 Lege Organikoak zenbait neurri ezarri ditu –aurrekontu egonkortasuna, finantza iraunkortasuna eta gastu erregela, nagusiki– gizarte-prestazioetako gastu publikoak murriztera eta inbertsio publikoak eragoztera bideratuak. Legezko aurreikuspen horrek autonomia erkidegoei eragozten die –toki administrazioei bezala– zuzenean lotzea prestatzen dituzten aurrekontuetako gastu-aurreikuspenak eta aurreikusitako diru-sarrerak, eta nahitaez lotu behar zaizkio –beren autonomiaren ageriko galerarekin– Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak prestatutako koefiziente bati. Nafarroaren kasuan, legezko aurreikuspen hori gure foru araubidearen aurkako eraso zuzena da, zerga, finantza eta aurrekontu arloko autonomia nabarmen murrizten duena.

Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legeak helburu du toki administrazioak bihurtzea zerbitzu publikoak enpresa pribatuekin azpikontratatzeko dituzten agentziak, lege-euskarria emanez pribatizazioei eta ustelkeriari. 27/2013 Lege horrek ezeztatu edo nabarmen murrizten ditu udalek hainbat arlo sentiberatan dauzkaten eskumenak; esate baterako, gizarte zerbitzuen prestazioa, sustapena eta gizarteratzea, hezkuntza, kultura, emakumearen

sustapena, etxebizitza, osasungintza eta ingurumenaren babesa.

Konstituzioaren 135. artikulua aldaketak nahiz aldaketa hori garatzen duten arauak auzitan jartzen dute udalen eta kontzejuen bideragarritasuna, eta horiek dira, hain zuzen ere, herritarrengandik gertuen dauden administrazioak. Halaber, beste urrats bat gehiago egitea da, Nafarroak toki administrazioen esparruan dauzkan jatorrizko eskumenak zapaltzeko bidean.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari, Diputatuen Kongresuari eta Senatuari premia-tzen ditu Konstituzioaren 135. artikulua erreformatu deusezta dezaten eta 2/2012 eta 27/2013 legeak indargabetu ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari, Diputatuen Kongresuari eta Senatuari premia-tzen ditu arau horiek bilatzen duten helburua lor dadin ekiditeko jarduketak sustatu ditzaten; alegia, toki administrazioak erabiltzea murrizketa-politikak inposatzeko eta, finean, horiek desagerrarazteko.

3. Nafarroako Parlamentuak erabaki hau Nafarroako Gobernuari helarazteko konpromisoa hartzen du, izan beharreko ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 11n

Foru parlamentariak: Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Adolfo Araiz Flamarique, Laura Pérez Ruano eta José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko enpresen eta pertsona ekintzaileen zamaren eta soiltze administratiboaren urteko zerrenda bat taxutu eta prestatzera.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Foru Komunitateko enpresen eta pertsona ekintzaileen zamaren eta soiltze administratiboaren urteko zerrenda bat taxutu eta prestatzera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Ekonomiaren arloko araudia da zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko batek dauzkan tresnetako bat, guztien onura sustatzeko eta merkatuan norbanakoaren interesen aitzinean interes orokorra defendatzeko. Ekonomiaren eta administrazioaren arloko araudia helburu publikoek justifikatuta egon behar du. Esku-hartze publiko horrek, ordea, orekatua izan behar du; hartara, minimizatu egin behar da jarduera ekonomikoaren garapenean izan dezakeen inpaktu negatiboa, horien helburu

legitimoak lortze aldera behar-beharrezkoa denaz harago. Hori bai, konponbidea ezin da izan neurririk gabeko desarautze bat, baizik eta efizientzia arautzea; alegia, ahalik eta kosturik txikiena ezartzea jarduera ekonomikoari, halako moduan non interes orokorren babesarekin bateragarria izanen baita.

Jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren hobekuntza handi bat etor liteke enpresentzako kostu ez-emankorrak murriztu edo kentzetik; besteak beste, justifikatu gabeko gehiegizko burokraziak eragindakoak.

Hortaz, beharrezkoa da ingurune administratiboa hobetzea, alferreko trabarik eta oztoporik jarri gabe, prozedura zalu eta soilduekin, eta Administrazioak erantzun azkarrak emanda eragile ekonomikoari, ez dadin gal inbertsio-proiektu bakar bat ere izapide burokratikoaren erruz. Burokrazia handiago batek ez du bermatzen interes orokorrak defendatzea eta enplegua sortzea.

Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartutako eskumenen esparruan enpresa berriak sortu, enpresa-jarduera garatu eta sustatu eta enplegua sortzeko xedez, enpresei eta ekintzaileei babesa emanaz, Nafarroako Alderdi Sozialistak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean diseinatu eta prestatu dezan Nafarroako Foru Komunitateko enpresen eta pertsona ekintzaileen administraziozamen eta -soiltzeen urteko zerrenda bat. Zerrenda horrek jasoko ditu ekintzaileek jasan behar dituzten eta Nafarroan eskumenak dituen administraziozama guztiak, edozein administrazioan sorturikoak.

Iruñean, 2016ko otsailaren 11n

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat presta dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egitura, antolamendu eta funtzionamenduaren gaineko Erregelamendu-marko bati buruzkoa, Gobernu Egokian oinarritua.

OSASUN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

